

AMARRALEKU ESKABIDEA	
Zer da? Zertan datza?	EKPk kudeatutako portu batean amarraleku bat erabiltzeko emakida eskatzean datza, bai deialdi publiko baten barruan, bai indarrean dagoen bitartean.
Nork eska dezake?	Edozein pertsona fisikok edo juridikok edo haren legezko ordezkariak, behar bezala egiaztatua, ontziarekin edo ontzirik gabe, betiere indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen badira (2017ko urriaren 19ko Amarratzeen Aginduaren 7. eta 8. artikulua).
Aurkeztu beharreko dokumentazioa	<p>Deialdiaren kasuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Amarratzeko eskabide-orria, behar bezala beteta. Titular bat baino gehiago egonez gero, 2017ko urriaren 19ko Amarratze Aginduan ezarritakoarekin bat etorriz. • Dagokion deialdiaren oinarrietan ezarritako dokumentazioa. <p>Deialdia indarrean dagoen bitartean bada:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Amarratzeko eskabide-orria, behar bezala beteta. Titular bat baino gehiago egonez gero, 2017ko urriaren 19ko Amarratze Aginduan ezarritakoarekin bat etorriz. • Eskatzailearen identifikazio-dokumentua. • Legezko ordezkari izanez gero, ordezkari hori egiaztatzen duen agiria. • Idazpen-orria, ontzi baten titularra izanez gero.
Non izapidetzen da?	<ul style="list-style-type: none"> • Ahal dela, eskabidea egiten den portuko kapitaintzan, jendeari arreta emateko ordutegian (kontsultatu helbideak). • Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako bitartekoen bidez.
Betebehar ekonomikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Eskabide-izapideak ez dakar betebehar ekonomikorik. • Erabilera-emakidak dagozkion tarifak ordaintzea dakar.
Epea	<p>Deialdiaren kasuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dagokion deialdiaren oinarrietan ezarritako epean. <p>Deialdia indarrean dagoen bitartean bada:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskabidea dagokion kapitaintzan sartu eta hurrengo hilabetean itxaron-zerrendan sartuko da.
Lege-esparrua	<ul style="list-style-type: none"> • 2/2018 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena. • Amarratze Agindua, 2017ko urriaren 19koa. • 39/2015 Legea, Administrazio Prozedura Erkidearena. • Beste araudi batzuk.

Oharrak	Deialdiaren indarraldian amarralekua eskatzeak berekin dakar dagokion itxaron-zerrendan sartzea edo ez sartzea, Amarratzeko Aginduan funtzionamendurako ezarritako ondorioetarako.
Onarpena	<p>Deialdiaren kasuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Deialdiaren ebazpena. <p>Deialdia indarrean dagoen bitartean bada:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Argitaratutako itxaron-zerrenda.
Jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura	<p>Deialdiaren kasuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Onartutako, ukatutako eta akatsak zuzentzeko eskabideen behin-behineko zerrendaren argitarapena. • Deialdiaren ebazpena. <p>Deialdia indarrean dagoen bitartean bada:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Positiboa bada, itxaron zerrendaren argitarapena. • Ezezkoa bada, ukatze-ebazpena.